

# DIRU-ITURRIAK

Gure bazkideak hilabetero 25 euroko kuota ordaintzeko prest daude gure kiroldegian eskeintzen ditugun zerbitzuengatik. 25 euro hauek eskuz edo kontu korrante bidez ordaintzeko aukera dute, beraiek nahi duten bezala.

Zerbitzu bereziren bat jaso nahi duten eta bazkide ez diren bezeroek ere aukera izango dute zerbitzu horiez gozatzeko; hala nola:

1. -Frontoiaren erabilera orduko 10 euro izango dira.
2. -Pistinaren erabilera goiz edo arratsalde osorako bonoak egongo dira 3 eurotan.
3. -Saskibaloia eta eskubaloia kantxa: bakoitzean ordua 10 euro kobratuko da.
4. -Tennis eta padel kantxak: bakoitzean ordua 8 euro kobratuko dira.
5. -Squasha: ordua 8 euro izango da, erraketak eta pelotak guk edukiko ditugu.

Beraz, gure kiroldegian ordainketa bakarrean edota kuota ezberdinetan ordaindu daiteke.

Gure kiroldegiak sarrerak bi modutan sortzen ditu:

1. Erabileragatiko sarien bidez: Erreserbatu egiten ditugu kiroldegi barruko frontoia erabiltzeagatik ordua.
2. Harpidetzagatiko sarien bidez: Gure bezeroek hilero ordaintzen duten kuotarengatik eskubidea dute kiroldegi barruko edozein zerbitzu edo instalazio erabiltzeko.

Lehen esan bezala, gure kiroldegiko prezioak finkoak dira, hau da, ez ditugu aldatzen prezioak beharrezkoa ez bada. Baina bertan dugun tabernaren prezioak bai dira dinamikoak, produktuen prezioa igotzen bada tabernan ere igo egingo direlako.